

Genscher:

«Europaren jarrera
zatituaz balia daiteke
Armada Federala»

DONOSTIA

Hans Dietrich Genscher-ek, Alemaniako Kanpo Arazoetarako ministroak Europako Estatu guztiei Jugoslavian bakea lortzeko ahalegin guztiak egiteko eskatu zien Bonn-en, eta horretarako neurririk onena batuta jarraitzea dela adierazi zuen ministro alemanak. Genscherren iritziz, Estatu bakoitzak bere aldetik joateaz (Europako Komunitatean egon diren iritziz zatiketaz bezala) balia daiteke Armada Federal jugoslaviarra bere erasoekin jarraitzeko.

Ministro alemaniarrek adierazi zuen Jugoslaviara baketze indar europarrak bidaltzeko bi baldintza bete behar direla aurretik: benetako suetena egoetza eta Komunitateko Estatu guztiak bat etortzea erabaki horrekin.

Gianni de Michelis-ek, Italiako Atzerri ministroak ere egin zituen adierazpenak Hagatik Erromara itzultzerakoan. Bere ustez, «Bake Konferentziaz gain ez dago beste alternatibarik eta are gutxiago interbentzio militarra suposatuko duenik. Ministro italiarrak Kroaziako gerraren erruduntzat Serbia eta «jarrera neutrala mantentzen jakin ez duen» Armada Federala jo zituen. «Baina Kroaziaren ardura ere ez dugu ahazten, tentsioak indartu bait ditu. Erradikalismo hauek ez ditugu inolaz ere bultzatuko, eta kontuz ibil daitezke agintari kroaziarrak hartzen dituzten erabakiekin».

Douglas Hurd ministro britaniarrak berri, Londresen adierazi zuen «Europak ez duela Jugoslavia bere arazoekin bakarrik utzi».

Jugoslaviako Armada Federala eraso gogorrak egiten hasi da

Hirurehundik gora ibilgailu blindatu federalek Kroaziako mugak iragan dituzte

Herenegun arratsaldean Beogradetik irten ziren tanke eta ibilgailu blindatuak Kroazian sartu ziren atzo Eslavonia aldetik, Kroaziako iparrekialdetik eta hiru herri txikiri eraso egin zieten. Armada Federalak, gerrilari serbiarren laguntzaz, Goardia Nazional Kroaziarrak jarritako fronteak hautsi eta «Osijek hiriko hegomendebaldean askatu zuen» Beograd Irratiak adierazi zuenez.

ZAGREB

Hau litzateke atzo gertatutakoaren gerra parte, serbiarrek emanikoa. Irrati kroaziarrak bere aldetik informatu zuen herenegun arratsaldean Beogradetik irten zen kolumna militarrek atzo iragan zuela muga kroaziarra eta borroka egiteko moduan zabaldu zela. Kroazian sartzerakoan, Armada Federalak Nijemci, Tovar-nik eta Lipovac herriak «okupatu» zituen eta Vinkovici hiriraino jarraitu zuten. Hiri horretan kroaziarrak Armada Federaletako koartel nagusia hartzeaz daude. Serbiarekin muga egiten duten hiru herri hauek «okupatu» aurretik gogor borrokatu behar izan zuen Jugoslaviako Armadak.



Bonbardatutako Bakaceva (Kroazia) herriko etxe bat.

BOZIDAR KELEMENIC

Armada Federalaren mugimendu hauek Osijek hartzea dute helburu, kroaziarrak «bizi guztiak galdu arte defendatzeko prest dauden hiria». Atzo gerrilari serbiarrek hiri horretako hegoaldean dagoen petrolio birfindegiari su eman zioten. Dena den, zentrutik urruti dago birfindegi hori.

Bosnia-Herzegovina, aldameneko errepublikan, erreserbista ugari aliatu dira. Zagreben, hiriburu kroaziarrean berriro jo zuen aire eraso sirenak eta hegazkin federalek oso baxu egin zuten hegan.

Bake aukera guztiak agortzen diren bitartean, Armada Federala Europako Komunitatean bertan dagoen

✓ Armada Federalaren mugimenduek Osijek hartzea dute helburu, kroaziarrak «bizi guztiak galdu arte defendatzeko prest dauden hiria»

zatiketaz baliatzen ari da suetenaren hitzarmena behin eta berriro hausteko, eta Esloveniak eta Kroaziak EK-k antolatutako Bake Konferentzia utzi ondoren, hor ere justifikazioa bilatu dute bere ekintza horiek aurrera eramateko.

BALKANETAKO BILERA ATZERATU Greziak proposatutako Balkanetako nazioen bilera azkenik atzeratu beharra izan zuten. Bileran Greziak ezezik Errumaniak, Bulgariak eta Serbiak ere hartu behar zuten parte. Jugoslaviako ordezkari bakarrak serbiarrek izan behar zuten eta horrek Mazedoniaren protestak eragin zituen. Mazedoniak Bulgaria eta Errumaniaren errepublika hari zegozkion arazoez inolako erabakirik ez hartzeko eskatu zuten. Italia eta Alemaniako Atzerri ministroek Gianni De Michelis eta Dietrich Genscher-ek gogor kritikatu zuten Greziaren proposamena eta mazedoniarrekin ados zeudela azaldu zuten. Grezia beldur da Mazedoniak egin diezaiokeen eskaraz eta nahiago du bileratan errepublika horretako ordezkariak ez egotea.

Iraken indarra erabiltzeko prest dagoela dio Bush

LOS ANGELES

George Bush, Estatu Batuetako lehendakariak Irakek Nazio Batuen Erakundeko (NBE) ordezkarietako oztupoak jartzen jarraitzen bazuen indar armatua erabiltzearen alde zegoela esan zuen. Irakeko agintariek «segurtasun arrazoiak zirela eta» NBEko ordezkarietako ez ziren helikopterorik erabiltzen utzi. EEBBetako Gobernua azaldu zuenez, Saddam Husseinek arma kimiko, bakteriologiko eta atomikoak egiteko lantegi ugari ditu eta NBEko ordezkarietako azpiegitura hauek ez kutatzen ari da.

Bushek hitz gogorrak izan zituen Irakeko buruzagiarentzat. «Ez dut etsiko Husseinek NBEren erabakiak bete arte eta lehendakari batek hau esaten duenean, esaten duena betetzeko ahalmena duela esaten du», esan zuen. EEBBetako lehendakariak Iraken kontrako eraso tropen mobilizazio erraldoia ez zela izango iragarri zuen. «NBEren helikopterorik gure armadako hegazkinek babesa eskaini diezaiakete»,

adierazi zuen lehendakariak.

Lehendakari estatubatuarrek azaldu zuenez, nazkatuta zegoen Saddam Husseinek NBEko ordezkarietako lantegiak aztertzeke oztupoak jartzean erakutsi zuen egoskorkeriarekin. Defentsa Departamentuko arduradunek, bere aldetik, Arabia Saudira bidalitako aire armadako unitateak alarma egoeran zeudela adierazi zuten.

Richard Boucher Defentsa Departamentuko arduradunak azaldu zuenez, Estatu Batuetako Gobernuak Hussein NBEren erabakiak betetzeko konprometua idatziz emateko eskatuko zion. Defentsa Departamentua Iraki mehatxu egiten ez zebilela azaldu zuen. Arduradunak esandakoaren arabera, Irakek NBEko ordezkariak eramateko egin zuen eskaintza faltsukeriaz beteta zegoen. NBEko ordezkariak bapatean azaldu behar zutela azaldu zuen bozeramaleak.

Estatu Batuetako Gobernuaren bozeramaleek jakitera eman zutenenez, Patriot misilak Arabia Saudiko Gobernuak eskatu zituztelako bidali ziren.


NBE eta NATO erabat kezkatutik daude Jugoslavian bizi den gerra egoeraz

DONOSTIA

Javier Perez de Cuellar Nazio Batuetako (NBE) idazkari nagusiak adierazi zuenez, Jugoslaviako gerra zibilak gaur egun munduan bizi den bake giroa hautsi dezake. «Jugoslaviako krisia gertutik jarraitzen ari naiz. Barne arazoa izan arren oso arriskutsua da Europa eta mundu osoaren bakearentzat han bizi den gerra», esan zuen NBEko idazkariak.

Perez de Cuellarrek NBEko «kasku urdinak» bidaltzeko aukera ez zuen baztertu. NBEko tropak bidaltzea Segurtasun Kontseiluak erabaki behar zuela adierazi zuen. Atzo Canadako Segurtasun Kontseiluaren bilera berezia eskatu zuen eta Frantzia eta Alemania berehala azaldu ziren ados canadiarren proposamenarekin.

NBEko idazkari nagusiak jakitera eman zuenez, Segurtasun Kontseiluak Jugoslaviako krisia Europarentzat arriskutsua izan zitekeela uste bazuen «kasku urdinak» bidali zi-



Javier Perez de Cuellar.

tezkeen. Dena den, Perez de Cuellarrek garbi utzi zuen Jugoslaviara tropak bidaltzeko lehen baldintza suetena ezartzea zela.

NATO BIZIKI KEZKATUTA Era berean, Europako Komunitateko eta Mendebaldeko Euro-

paren Batasuneko ordezkariak Jugoslaviari buruz hartutako erabakien berri NATOko Kontseiluaren eman zuten. Nahiz eta NATOko Kontseiluaren bilera berezia izan, bozeramale batek esan zuenez «normala» zen Atzerri ministroen artean Jugoslaviaren krisiaz hitzegitea. Bileran ondoren George Bush EEBBetako lehendakariak bide diplomatikoari eutsi behar zitzaiola adierazi zuen.

NATO joan zen ekainean hasi zen Jugoslaviako gerra jarraitzen. Erakunde militar horrentzat Jugoslaviako krisiak garrantzi handia du. Jugoslaviako NATOko bi nazioekin mugak ditu: Italia eta Grezia. NATO barruan dauden nazioek ezin dute parte hartu beraien kontrako eraso erantzuteko ez bada.

Jugoslaviako krisia «barne arazo» baino ez da NATOrentzat, baina gaur egun Europaren erdian gerra zibil batek izan ditzakeen ondorioek erakunde biziki kezkatzen dute.